


Zumaiako herri aldizkaria

2000ko martxoa

BALEIKE

200 pta.

66. zenb.



● Ze berri: Udal
Gobernua
aurrekontuak
onartu ezinean

● Erreportaia:
Kinkilleroak,
ostegunetako
erosketa

● Kirola:
Kroseko
emaitzak eta
argazkiak

● Ixidro Etxabe:
“Elkarlana da bide bakarra”

ERROTA



OPIL OKINDEGIAT

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

berria!

XSARA

Picasso

ZUMAIA MOTOR



**CITRÖEN
ZERBITZU
OFIZIALA**



Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxe : 943 143 143

mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 04 12
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro
Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Josu Walino

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Gorka Zabaleta
J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,
Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Xabi "Pendejo"
Hernandez

Argazkiak

Baleike
Aitor Bayo

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketaziora

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.



Antxoka Agirre

Hauteskundeak

Ari naizelatarra neu ere. Karrera bat egiten hasi eta urte dexente
pasa ondoren hor nabil maratoia bukatu ezinik.

Aukera izan dut bada EHU ezagutzeko, eta hainbat gauza sufritzeko
(matrikulak, laguntzen eskasia, masifikazioa, irakaskuntzaren maila e.a). Gai guzti
hauetaz hitzegin beharra badago, baina euskeraren egoeran zentratuko naiz, hau benetan
kontatzeko modukoa iruditzen baitzait.

Materiala falta da (erdarazko liburuetatik ikasi behar azterketak euskaraz egiteko),
irakasleak falta dira, eta gehiengoaren euskera maila (ez naiz esageratzen ari) penagarria
da. Gogoan dudana adibiderik laburrena: irakasle bat, zuzenbidean katedraduna bera,
auzitegi 'h'-arekin idazten zela tematu zitzaigun klase batean ordu erdiz.

Errezena kexatzea da noski, baina ikasleok, bakarrik, ezin dugu askoz gehiago egin.
Adibide bat. Zuzenbidean hasi aurretik filosofian egin nituen pare bat urte. Lehenengoan
Mikel Azurmendi, egun Ermuko Foroko kidea dena, tokatu zitzaigun irakasle. Zegozkion
euskarazko klaseak (mila aitzakia tarteko) ez zituen eman nahi. Hamaika ahalegin egin
genituen asuntua mugitu nahian: Bilerak, manifak, firma bilketa eta batipat irakasleen
bulegoetan ibiltzea. Benetan harrigarriak dira EHUko burokrazia eta irakasleen arteko
intrigak; nazka-nazka eginda eta ping-pong sindrome latzarekin bukatu genuen guztiok.

Kurtso t'erdi horrela galdu ondoren denuntzia bat jartzea erabaki genuen. Epaileak deitu
zuenean, eta denuntzia kentzearen truke, hasi zitzaigun klaseak ematen.

Kasu bat besterik ez da baina ederki isladatzen du EHUak euskararekiko duen jarrera.

Estatutuak EAERI dagokiola dioten arren Madrilen esku dago irakaslearen erregimena.
Irakaslego propioa litzateke soluzioa, baina politikariek ez dute aipatu ere egiten. Bestalde
harrigarria da gizarteak ikastolekin duen arduraren ondoan (Azpeitian adibidez kasi
elkarjoka ibili eta bi eraikitzerainokoa) unibertsitatearekiko duen arduragabekeria.

Joan diren astean EHUn izan diren hauteskundeetan Manuel Montero aukeratu dute
errektore berri. Ermuko Foruko kide ohia eta euskaraz ez dakiena... ikusten hasia nago
euskal adarraren adarjotzea baino lehenago bukatuko dela nire maratoia.


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



EA-k ere badu zer esana

Ekainaren 13-an egin ziren Udal Hauteskundearen ondoren bilera bat baino gehiago egin du EUSKO ALKARTASUNAK hauteskunde horietan boturik gehien jaso zituen indarra-rekin, EJK-rekin, alegia.

EAJ beraren eskariz, bi hilabetez egin ziren bilera horietan, argi azaldu genituen gure ustez gestio alor ezberdinetan eta egunez-eguneko udal politikan kontuan hartu beharreko oinarri sendoak zeintzu ziren. Aldi berean, egun bizi dugun egoera politikoa dela eta, EA-koek gobernu nazionalista baten aldeko apostua egin genuen.

Eztabaida pizteko inolako asmorik gabe, EA-k egungo egoeraren aurrean duen jarrera eta ikuspuntua azaldu nahi dizue: gure etsipena azaldu nahi dizuegu gobernu berriaren osaketarako beharrezko ziren akordioak orain arte ezinezkoak izan direlako, ez Ea-rekin, ez beste alderdiekin. Ondorioz, 2000. urteko aurrekonturik gabe dago Zumaiako Udaletxea. Honek ez du esan nahi udaletxea osatzen dugun alderdi guztiok proiektu berriak aurrera eramateko prest ez gaudenik.

Hau da EA-k Udaletxeko presupuestoen onarpena negoziatzeko duen proposamena:

- Babes Ofizialeko etxe bizitza gehiago.
- Hirigintzako Arau Subsidiarioak biltzen dituen dokumentuaren berraztertzea, udala osatzen duten alderdien parte hartze ahalik eta handienaz.
- Goiko Plazan, egungo merkatuaren berrantolaketa orain artekoak kontuan hartuz; beti plaza publikoen aldeko apustu garbia eginaz.
- OXFORD eraikinak kulturagune moderno eta eroso gisa eskeintzen dituen aukera guztien azterketa.
- Arrangoletako eraikin zaharrean plaza bat egitea auzo hartan egungo etxebizitza dentsitatea dela eta.
- Batzoki zaharra berreskuratu eta igogailua duten Osakidetza instalazio berri gehiago egin. Gaur egunekoak, erosoak.

- Baserrietara ura eramateko dauden arazoentzat behin-betirako konponbidea.

- Oztopo urbanistikoak ekiditeko programa zabaldu eta etxe-bizitza partikularretan igogailua jartzeko dirulaguntza

Baina ez ditugu ahaztu zumaiar askoren kezka-iturri diren beste gai batzuk. Kirolekin lotura dutenak esaterako:

- Elkarre ezberdinei ematen zaizkien dirulaguntzak berraztertut.
- Pizsinako salneurriak egokitu.
- Belar artifizialdun futbol-zelai berria egin.
- Rokodromoa, etb

Presupuesto horiek Euskara eta Zumaiako auzo ezberdinetako, Oikia, Narrondo eta San Migeleko, beharrak ere kontuan hartzen dituzte.

Amaitzeko, gure eguneroko lanean lortu nahi dugun horren berri eman nahi dizuegu: Udaletxea, herritarrek gertuen duten administrazioa izanik, gestio garbi eta demokratikoaren eredu izan dadila. Partidu ezberdinetako sensibilitateak ordezkatzeko demokratikoki hautatuak izan diren zinegotziekiko errespetuzko jokaera eredugarria izan dezala.

Errespetu horren beharra somatu dugu behin baino gehiagotan EA-ko ordezkariok. Batez ere azken asteotan, kirolekin lotura duten zenbait egitasmo oztopatu izanaren errua publikoki eta arrazoirik gabe egotzi digutenean; hau sinistu dutenei zera galdetuko genieke: benetan pentsatzen al duzue Udala osatzen duten hamahiru zinegotzietik biek (EA-koek) hainbesteko erabakitzeo ahalmena duguenik?

Dena kontutan hartuta, hau guztia lortzeko lanean jarraitzeko asmoa du EUSKO ALKARTASUNAK legegintzaldi berrian.

ZUMAIKO EUSKO ALKARTASUNA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxa: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean



Zumaiako Gurutze Gorriak, aldizkari honen otsaileko zenbakian, Gorka Zabaleta ikazetariak Gurutze Gorriari buruz eginiko idatziaz zenbait gai argitu nahi ditu.

Idatzi honetan, informazioa eta iritzia bereiztu behar dira. Lehenengo hau egiarekin bat ez dator. Lehenik eta behin, esan behar ONGak, administrazioak betetzen ez dituen atalak jorratzen saiatzen diela.

Informatzaileak, udakoa ezik, Gurutze Gorriak herriari zerbitzurik ez diola ematen dio. Hona hemen Gurutze Gorriak lantzen dituen zerbitzu batzuk.

Giza zerbitzuak: San Juan egoitzako pertsonen irtenaldiak egin bertan duten ibilgailuarekin (Kontxako estropadak, hauteskunde egunak, Lourdesera bidaia eta bestelako irteerak egiten dituztenean), Udaletxeko Gizarte Zerbitzuek hautatutako pertsonen janari banaketa egitea, odol emaileak, eta abar.

Kirol zerbitzuak: errepideko txirrindulari laisterketak, ziklo krosa, Zumaiako Krosa, arraun eta piraguismo estropadak eta abar.

Bestelako zerbitzuak: zezenketak, Itziarko martxa, su artifizialak eta abar. Lehen laguntzako eta uretako sokorrismo kurtsoak ere ematen dira.

Udan, hondartzetan ematen diren zerbitzuei buruz, esan behar jendea kontratatatu egiten dela, Gurutze Gorriak Udaletxearekin duen komenioa dela medio. Udara amaieran Gurutze Gorriak memoria bat aurkeztzen du Udaletxean gastu guztiak justifikatuz.

Idatziaren beste atal batean, anbulantzi bat garajeen izorratuta eta bestea aseguruak gabe daudela dio. Garajeen ibilgailu bakarra sartzen da, beraz, bestea kanpoan eduki behar. Aseguruari dagokienez, idatzi honekin batera, anbulantzia ekarri zenetik izan diren agiri guztien kopiak igortzen dira, esandakoa egia ez dela frogatuz.

Beraz, bere burua kazetaritzat duen norbaiti, zerbait argitaratu baino lehen, informazioa jasotzeko eskatuko genioke.

Gorka Zabaletak, iritzi batzuen artean, honakoa adierazten du: "Estatuaren beharrei men egitea, diru mordoaren truke" eta "norbaitek etekina aterako zuen, ziur". Esan behar, etekinik handiena objetoreek atera dutela, prestazioa Zumaian egin ahal izan baitute. Gurutze Gorriari, bestalde, objetoreen formazioak diru gastua suposatzen dio (kurtsoak, gida baimenak, eta abar).

Adierazi ere, Zumaiako Gurutze Gorriko partaide guztiok bolondresak garela eta ez dugula inongo etekin materialik jasotzen. Baita, kontuak garbiak direla eta edozeinek ikusi eta aztertu ahal dituela hala nahi izan ezker.

Idatziaren hasieran, medikuaren gaia, manifestazioak eta Gurutze gorria nahasten dira. Esan behar, larrialdietarako medikua Udaletxeak jarritako zerbitzu bat izan zela. Aipatu nahi dugu ere RTSUari (Red de Transporte Sanitario Urgente) buruz. Euskal Autonomia Elkarteak, Babes Zibileko arduradun gorenak Eusko Jaurlaritza da eta 1999 urteaz geroztik, beste erakunde batzuekin komeniatzea erabaki zuen. Beraz, gaur egun Gipuzkoan Gurutze Gorriak ezin du larrialdi zerbitzurik bete.

Zumaian, zerbitzu hau ezik, lehen lantzen genituen atal berberak jorratzen ditugu. Egia da, bestalde, bolondresongan, emergentzien atal honek duela arrakasta gehien eta beste bolondres instituzioetan bezala Gurutze Gorrian ere bolondres falta dugula. Gogoratu bolondresei ahal duten edo eta nahi dutena baino gehiago ez n eskatzea.

Gorka Zabaletak idatzia amaitzeko egiten dituen galderei "zer egin behar dute 2003tik aurrera? Eta guk ordura arte?" Erantzuna emateko, zera esango genioke: Gurutze Gorriko bolondres egin dadila. Askotan ikusten ez den lana egin arren, laguntza ematen zaionaren esker ona jasotzeak indarberritzen gaitu.

ZUMAIKO GURUTZE GORRIA

dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



2000ko lehen Kreditu Aldaketa onartuta pleno iskanbilatsu batean

Zumaiaiko Udalaren plenoak 2000 urteko lehen Kreditu Aldaketa onartu zuen otsailaren 10ean ospatu zen ez-ohizko Pleno Orokor iskanbilatsu batean. Kreditu aldaketa honen beharra Zumaia urte honetarako aurrekontu orokorrik gabe egotean datza. Jakina den bezala, Zumaiaiko Udalak ez du oraindik aurrekonturik, eta hori dela eta, 1999ko aurrekontuak prorrogatu dira automatikoki. Hala ere, aurrekontuaren prorroga horretan ez dira inbertsioetarako behar diren diru kopuru handiak automatikoki berritzen, gastu soiletarako kopuruak baizik. Hori dela eta, Udalak egin behar dituen inbertsioetarako, edo eginak dauden lanak ordaintzeko behar duen diru kopurua lortzeko onartu zuen 2000ko lehen Kreditu aldaketa hau.

Kreditu aldaketaren proposamen honek aldaketa batzuk izan zituen azken momentuan. Batetik futbol zelaiko belarra aldatzeko partida zerrendatik kendu zen, horrekin ahal zen gehiengo handiena lortzeko.

Bestetik, azken momentuko partida bat sartu zen: depuradora egiteko beharrezkoak diren lurak erosteko diru partidarena alegia.

Rikardo Peña alkateak zioenez, Kreditu aldaketa hau Zumaia aurrekonturik gabe egotean, eta denbora luze batean aurrekontu berria onartuko ez zelako egin da. Udaleko beste alderdi politikoekin izandako elkarriketetan aurrekontu bat izatea gobernu hitzarmen bat lortzean oinarritzen da. Alkateak esan zuenez, "herriak ezin du geldirik egon negozio-zioek aurrera diharduten bitartean, eta horregatik aurkeztu dugu kreditu aldaketa hau. 2000ko aurrekontuen proiektua ez da Plenora eraman gehiengoak onartuko zuela ziur ez baitzegoen. Absurdua izango litzateke plenora eramatea gero honek atzera botatzeko". Azkenik, Rikardo Peñak esfortzu bat eskatu zien alderdi guztiei, alderdikeria alde batera utziz Zumaiaaren alde lan egin dezaten.

Pleno iskanbilatsua

Alkatearen ondoren, Felipe Gutierrez PSE-EEko bozeramaileak hartu zuen hitza. Berak ordeztan duen alderdiak baiezkota eman zion kreditu aldaketari, horretarako bi arrazoi eman zituelarik: alde batetik Ur Zerbitzuari emandako maileguaren bitartez herriko ur kontagailu guztiak denbora gutxian aldatzeko aukera egongo delako, eta bestetik Aita Mariko garajeak egiteko konbenioagatik.

Uxua Ostolaza izan zen EHren bozeramaile Udal pleno honetan. Bere alderdiak kontrako botoa eman zion kreditu aldaketari, bere esanetan, horrekin urte honetako aurrekontuaren zati handi bat kreditu aldaketaren bitartez onartua izango zelako. Beraien esanetan aurrekontua bere osotasunean landu behar da. Azkenik, EHren esanetan aurrekontuen gaian hitzarmen batetara heltzeko gobernu osaketan hitzarmen bat egon beharko luke.

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

Arantxa Gajatek, EAren ordezkariak esan zuenez, berak ordezkatzeko duen alderdiak kreditu aldaketaren aurka eman zuen botoa, diru kopuru handiegia zelako eta horrela, modu kamuflatuan, aurrekontuak aurrera aterako zirelako. Kreditu Aldaketaren gaia alde batera utziz, Arantxa Gajate kalean entzuten diren zurrumurru batzuei buruz aritu zen ondoren. Kanean esaten denez, Zumaian proiektu asko atzera bota dira EAK proiektu hauek onartzen ez zituelako, eta hori, bere esanetan, oso gogorra da. Amaitzeko, 2000ko aurrekontuak kreditu aldaketa bitartez onartuko zirenez, 2001 urteko aurrekontuak denen artean egiteko deialdia egin zuen EAren zinegotziak.

Udala osatzen duten alderdiek beraien iritzia eman ondoren, iskanbila bat izan zen Rikardo Peña eta Udaleko beste bi alderdi abertzaleen artean, eta konkretuki Peña eta Arantxa Gajate, EAKo zinegotziaren artean.

Aurrekontuen gaia dela eta, Alkatearen esanetan, proiektua aldeztu aurretik aurkeztu zen baina ez zen inongo erantzunik egon Udaletxea osatzen duten beste alderdien eskutik. Ondoren, alderdi abertzeleekin hitzarmenak lortzearen zailtasuna aipatu zuen Peñak. EAren jarrera umeke-riatzat jo ondoren, EHko ordezkariak keinu bat egin, eta konfidantza botoa eman zezaten eskatu zien, herriaren aldeko proposamen bat baizen berak aurkeztu zuena. Ondoren kreditu aldaketa hau aurrera ateratzeko PSEk emandako laguntza eta beragan aurreko legealdian jarri zuten konfiantza eskertu zuen Peñak.

Pleno honen momenturik gogorrena Peña eta EAren zinegotzien artean

izan ziren hika-miketan egon zen. Lehenik eta behin, Peñak EAKo bozeramaileak, Arantxa Gajatek Udaletxeko funtzionamenduan izandako irregularitateei buruz esandakoak gaitzetsi zituen. Ondoren EAekin negoziazio fasean EAJk egindako lana aipatu zuen Peñak, dena alferrikakoa izan zela esanaz, horrela Zumaian EAK egiten duen politika "mezquina, poco seria, infantil y de pataleta" dela esanaz.

Irregularitateei dagokionez, Arantxa Gajatek erantzun zion berak ez duela inoiz halako ezer esan, eta bere jarrera

azalpenak eskatzearena esan dela. Zumaiaiko EAren politikari dagokionez, Abel Yeregik hartu zuen hitza, eta hasera batetatik EAJren politika EArena gutxiesten dela aipatu zuen.

Otsailaren 10ean izandako plenoak modu horretan jarraitu zuen, azkenik Kreditu aldaketa onartu zelarik, EAJ eta PSEren baieztakoz zapituak eta EH eta EAren aurkako bostekin.

◀ JUAN LUIS ROMATET

2000ko lehen kreditu aldaketaren proposamena

Inbertsio errealak

Depuradora egiteko lurren expropiazioa	1.332.000
Ekipamendu informatikoa	1.500.000
Abiadura jeisteko erosketa	1.000.000
Aita Mariko saneamendua	1.300.000
San Telmoko saneamendua	3.000.000
Edukigailuak eta paperontziak	1.600.000
Liburuak	2.500.000
Kirol instalakuntzak	40.000.000
Burnizko zubia	10.000.000
Narrondoko urbanizazioa	4.000.000
San Juan Egoitzako plaza	10.000.000
San Migelekeko errepikagailua	500.000
Proiektuak eta ikerketak	38.000.000

Kapital transferentziak

Aita Mariko garajekoekin hitzarmena	10.000.000
-------------------------------------	------------

Finantz-aktiboak

Mailegua Ur Zerbitzuak (kontagailu guztien aldaketa egiteko)	14.000.000
--	------------

Kreditu aldaketa guztira

138.732.000



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 861018

BALEIKE

2000ko martxoaren 66. zenb.

AUTOS ZUMAIÀ

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Sahara, askatasunaren basamortua

Sabino Arana Kultur Elkargoak eta Zumaiaiko Udalak pasa den otsailean "Sahara, askatasunaren basamortua" erakusketa aurkeztu zuten Oxford Erakusketa Aretoan. Erakusketa honetan, saharar herria gaur egun bere erbestealdian, Aljeriako erdi-mendebaldeko Tindouf lurraldean, jasaten ari den egoeraren berri eman eta ezagutaraztea da asmoa. 1975ean hasi zen aipatutako erbestealdia eta 1991n amaitu beharko zen autodeterminazio erreferenduma egitearekin, baina Marokoren okupazio administrazioak behin eta berriro oztopatu izan du eta oztopatzen du erreferenduma.

Lurraldea itxita dago turismoarentzat nahiz prentsarentzat eta defentsa-hesi militar batek babestuta dago; hesiari "muruak" deritze eta hantxe begiratzen dute Frente Polisarioko militarrek, UNOk 1988an proposatutako su-etena. Hala ere, Tindouf-eko Espainiako Gurutze Gorriaren



ordezkari baten laguntzari esker, Juan Armentia eta Jose Alberto Ubierna argazkilariek Aljeriako Hamadaraino heltzea lortu zuten, hau da, 1976tik saharar erbesteratuen kanpamenduak kokatuta dauden lekura, eta euren argazki kamerez erbestean bizi behar latz hori agertzea erdietsi ere bai. Gainera, erakusketaren osagarri bezala Paulino Oribe argazkilariak egindako diapositibak, Diapolaneko zuzendari-gerenteak, Kepa Gonzalezek egindako ikusentzunezko bat eta sahararren zenbait material eta tresna ere erakusten dira, azken hauek RASDeko hainbat elkartek, Frente Polisariok, etab.ek utzita.

Erakusketaren aurkezpen ekitaldia

Otsailaren 17an izan zen aurkezpen ekitaldian Zumaiaiko Alkateak Rikardo Peñak, Sabino Arana Kultur elkargoko zuzendariak, Iruñe Zuluagak, eta

Frente Polisarioren Euskal Herriko ordezkariak, Mohamed Salemek hartu zuten parte. Bai Rikardo Peñak eta bai Iruñe Zuluagak Sahararen egoeragatik duten kezka eta Euskal Herriko bizilagunok Saharako herrialdeagatik sentitzen dugun solidaritatea aipatu ondoren, Frente Polisarioko ordezkariak, Mohamed Salemek hartu zuen hitza. Lehenik eta behin, bai Sabino Arana Elkargoari eta baita ere Zumaiaiko Udalari eskerrak eman ondoren eta erakusketa hau, beraien herria bezala, nomada bezala definitu ondoren, Saharako herriari buruz hitz egin zuten. Alde batetik, Marokoko Gobernuak autodeterminazio erreferenduma ez egitearren jartzen dituen oztopoak aipatu zituen, eta baita ere UNOk arazo honetan mantentzen duen paper ahula. Aurkezpena amaitzeko, Mohamed Salemek ultimatum antzeko bat egin zuen: 2000 urte amaierarako Saharan autodeterminazio erreferenduma egiten ez bada, Frente Polisariok UNOn ordezkariari joateko eskatu, eta berriz borroka armatura bueltatuko dira Marokoren okupazioaren aurka. Hitzaldi hauen ondoren, aurkezpena joan ziren denek Saharako tea dastatzeko aukera izan zuten.

◀ JUAN LUIS ROMATET

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etchezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

fidatzeko baimen guztiak



Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067



Otsailaren 19an bi derbi jokatu ziren Zumaian. Alde batetik arratsaldeko 4.30etan Aita Mari futbol zelaian Zumaia eta Zarautzek jokatu zuten beren partidua. Bestetik, hiru ordu geroago, arratsaldeko 7.30etan Lubaki kiroldegian Pulpo eta Arrate aritu ziren eskubalo partidua batean. Partiduak oso garrantzitsuak baziren ere, eta hala izan dira, garrantzitsuak izan zen baita ere partiduen atarian lau taldeek hartutako erabakia. Bi partidua hasi aurretik taldeak batera atera ziren Lizarra-Garaziren aldeko pankarta batekin, bertan Euskal Herriaren arazoak konpontzeko elkarrizketaren beharra aipatzen zelarik.

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo
importaturiko enopa eta artisautza



Basadi, 3



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etkezaretza, 25

Tel. 862073



Basadi Auzategia, 10 behe
Tel. 862051

DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A, 2-B

BALEIKE

Kinkilleroak, ostegunetako erosketa

“Quinquillero: Persona que fabrica o vende quincalla.

Quincalla: Conjunto de objetos de metal de poco valor”. Aintzinako saltzaile nomaden bizimoduaren oinordekoak dira zentru komertzial maxi-mega erraldoien eta internet bidezko salerosketaren garaia dela dioten honetan. Gaur hemen eta bihar han, goizean goiz furgoneta kargatu eta inguruko herri guztietatik pasatzen dira astean zehar beren postuarekin. Urte dezente daramate gehienak eta ondo ezagutzen dituzte herri bakoitzeko alkatearen maniak, jendearen izakerak eta lapur txikien aurpegiak.

Urdaiazpikoak, zapatak, gozokiak, alfonbrak, barazkiak... izenak aipatzen duen kinkaila izan ezik denetarik aurki daiteke postuen artean. Hori bai, dendetan baina merkeago.



Ordubatetan, postuak desmontatzen hasi baino lehenxeago, egin dugu zita hiru saltzailerekin. Pedro Galvez-ek barazki eta fruitu postu handi bat dauka Kalmelo Unanueko fabrika zaharraren kontra, aurreko jabearen izenez ezagutzen dena: “Frutas Matias”. Jose Ramos-ek zapatak saltzen ditu Ortega y Gasset kalean duen postuan, eta Migel Angel-ek arropa, Marina kafetegiaaren frentean.

Historia pixka bat egin nahian ekiten diogu solasaldiari. Azokaren jatorriaz galdetzean ez dakite data zehatzik ematen, baina ados jarri dira 50 urtetik gora dituela kalkulatzera.

Amaiako plazan duela 20 urte egiten da, lehenago 10 bat urtean Beheko plazan egin zen eta aurretik beste urte mordoxka batean goiko plazan.

Beraiek, orain diren saltzaile gehienak bezala azokaren bigarren belaunaldikoak dira. Jose da hiruretan beterranoena. Azoka Beheko plazan zegoela hasi zen lanean duela 26 urte, 14 urterekin. Migel Angelek aitaren-gandik jaso zuen postua. Aita 79an hasi omen zen. Bera hasiera batean eskolatik libratzen zenean bakarrik etorri ohi zen laguntzera, duela 11 urte aitak beste lan bat bilatu eta postua berari pasa zion arte. Pedro

ere aurreko jabearen laguntzaile bezala hasi zen 14-15 urterekin, eta gero, duela 16 urte, postua erosi zion honek erretiratzeko asmoa azaldu zionean.

Tokia aldatuz joan bada ere eguna beti berdina izan omen da: osteguna.

Eguneroko martxa

Migel Angel eta Jose zazpi t'erdietan jeikitzen dira Zumaira etortzeko, eta Pedro, urrunagokoa izanik, seiretan hasten omen da kamioia kargatzen. Postua jartzeko tokia udalak ematen duen lizentziak zehazten du. Montatu eta bederatzietarako saltzeko prest.

Migel Angel eta Josek bakarrik egiten dute lan, Pedrok emaztearekin eta inoizka anairen batekin. "Normalean soldata bakarria ateratzen da postu bakoitzetik eta laguntza behar izanaz gero familiarengana jotzen da. Hala ere postu gutxi batzuetan sozio ezberdinak edo bestelako laguntzaileak egotea ere gertatzen da" esplikatzan du Pedrok.

Hamarretatik hamabietara izaten omen dute lanik gehien. Bezeroak, normalean etxeko andreak. Pedrok barazki eta fruta saltzailea izanik bezero finkoak ditu. "Urte asko daramatzat hona etortzen, eta bezeroek produktu mota hau astero behar dutenez aspaldidaniko tratu jarraia dut eurekin" dio berak. "Neuk ere baditut bezero erdi finko batzuk" dio Migel Angelek, "baina gehienak txiripazkoak dira, bueltaka dabiltzala behar dutena txiripaz nirean topatu dutenak". "Produktu motaren arabera desberdina da guztia: lana, bezeroak..." dio berriro Pedrok.

Saltzerakoan hartu beharreko jarreraz galdetzerakoan bezeroari bakean uztearen aldeko azaldu dira hirurak. "Behin engainatu dezakezu bezeroa, baina bi aldiz ez, ez zaizu berriro etorriko eta" azaltzen du Pedrok. Ba omen daude belarrijale galantak diren batzuen batzuk ere, baina urtetako esperientziak isilik egonda berdintsu saltzen dela erakutsi die.

Lapur txikia, saltzaile txikiaren betiko etsaia hartu dugu ondoren hizpide. "Zumaia ez da oso herri lapurra" komentatzen du Pedrok eta beste biak ados daude berekin. "Gainera lapurretan ibiltzen diren hauek beti berdina izan ohi dira, hainbeste urtetan ibilita ezagutzen dituzu, eta inguratzen direnerako jakinaren gainean egoten zara, edo ondokoak abixatzen dizu" dio Migel Agelek. Lapurreten inguruko pasadizoak kontatzen hasten dira ondoren. Xelebreena Migel Angelek kontaturikoa: "Eskularru batzuk lapurtzen ari zitzaidan aitona bat harrapatu nuen behin. Tokea eman eta bere asmoa probatzeko etxera eramatea zela bota zidan, etzuela lapurretarako intentziorik. Ozen esan zuen gainera eta inguruko guztiak begira jarri zitzaizkion. Eskuak etxean utzi ote zituen galdetu nionean barrez hasi ziren batzuk eta gizarajoak koloreak dana igota aldegin zuen".

Herri-herri

Udalek emaniko lizentziak dira herri-herri dabiltzan saltzaile hauen sistemaren ardatza. Herri guztietan egiten dira astean behin gisa honetako azokak. Herri bakoitzean udalak lizentzia kopuru mugatu bat ematen du, eta saltzaileak ahal dituen lizentziak erosi, Zumaiakoa beste herrietakoa baina garestiagoa dela diote



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 25 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

expert 

ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 861078

Amertxe

**profesionalak gara
etor zaitez!**

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117-143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

hirurek, eta hauen arabera antolatzen du bere astea. Honela Pedrok asteartean Azpeiti, azteazkenean Ordizi, ostegunean Zumaia, ostiralean Eskoriatza eta larunbatean Tolosa egiten ditu. Josek asteartean Azpeiti, ostegunean Zumaia, ostiralean Mutriku eta larunbatean Oñati. Eta Migel Angelek asteleean Errearteria, asteartean Andoain, asteazkenean Lekeitio, ostegunean Zumaia, ostiralean Leitza eta larunbatean Irun.

Zumaian hogeitamarretik berrogeitamar postu bitartean egoten dira. Eguraldiaren arabera gerta ditek batzuk etxean gelditzea, eta urtarok ere izan ohi du eragina honetan, batzuk udaran bakarrik ateratzen baitira. "Jendea sartu eta irten ere egiten da. Batzuk denda finko bat jartzea lortu eta bizimodu hau utzi egiten dute, eta badaude denda galdu eta gelditu zaienarekin zirkuitoan sartzen direnak ere" seinalatzen du Pedrok.

Elkarren arteko harremanaz galdeztzean Jose da erantzuten lehena. "Bakoitza bere aldetik joan ohi da, ez da oso harreman estua izaten, baina guztiok ezagutzen dugu elkar eta norbaitek laguntza eskatzen badizu lagundu egiten diozu" dio. Hirurek dute lagun on bat edo beste saltzaileen artean, baina haserreak ere izaten omen dira batzutan. "Denetarik dago tartean" dio Migel Angelek, "badaude petralagoak eta jatorragoak, badaude oso hiztunak direnak eta kasik hizkuntza menderatzen ez duten magrebiarrak... batzurekin gehiago koinziditzen duzu, beste batzurekin, postua jartzen duten herriko dendariekin esaterako, astean behin soilik..."

Ez dira asko kexatzen lanbideak ematen dien bizimoduaz. Pedrok kostaldeko haize hotza eta "madrugoia" aipatzen ditu eragozpen nagusi gisa. "Arratsaldea libre daukat, ez daukat atzetik dabilen nagusirik... baditu bere abantailak lanbide honek" dio Josek. Migel Angel ere ez da

kexatzen, baina aukera egokia suertatuaz gero denda finko bat jartzea gustatuko litzaiokeela dio.

Zentru komertzial erraldioen konpetentziaz ere aritu gara azkenik. Josek nabaritzen dela dio, baina beste biek ezetz. Internet bidezko salerosketak aipatu dizkiedanean ez dute beldur handirik erakusten. "Plazara etortzen diren bezero gehienek ez dut uste internetetik inoiz ezer erosiko dutenik, barazki eta frutak behintzat ez" dio irribarrez Pedrok. "Etxetik mugitu gabe erostea baino ederragoa da azokatik buelta bat emanaz haize pixka bat hartzea" gaineratzen dio Josek.

Dagoeneko Amaia plaza inguruak ustu dira jendez. Baina goiz guztian ibili den jendetza ikusita garbi dago zentru komertzial mega-maxi erraldio eta internetena dela dioten garai honetan kinkilleroak direla nagusi Zumaian ostegun goizetan.

◀ ANTOKA AGIRRE



ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

Telebés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+


CANAL DIGITAL

KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA


TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

Ixidro Etxabe:

“ETAk badaki bere ekintzekin baino elkarlanarekin pauso gehiago eman daitezkeela”



Ixidro Etxaberi 800 urtetik gorako zigorra ezarri zion epaileak, ETAkidea izan eta hainbat ekintza armatu burutze-agatik. 1981ean espetxeratu eta 12 urte geroago atera zen, Espainiako Gobernuak hirugarren gradua eman zionean. Zalaparta handia sortu zuen orduan bere erabakiak. Ixidrok arrazoi ideologikoak eta estrategikoak argudiatu zituen pauso hori emateko. Ez zegoen ados ETak hartutako bide berriarekin. Batzuek, ordea, zerbait gehiago ikusi zuten, eta traidoretzat hartu zuten. Gaur egun Zornotzan bizi da, han han baitu familia eta lana. Hala ere, maiz etortzen da Zumaiara, gurasoekin egon eta lagun zaharrak bisitatzeraz. Bere jaiotetxean hartu gaitu, iraganaz, orainaz eta etorkizunaz mintzatzeko.



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT



Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

BALEIKE

ETAk su-etenaren amaiera iragarri zuenetik bi ekintza burutu ditu.

Azkenengoan Fernando Buesa sozialista eta bere bizkartzaina hil ditu.

Zure ikuspuntutik, erakundeak zer adierazi nahi du ekintza horiekin?

Egia da azken ekintza horrek dezente lainotu duela giro politikoa, baina niri behintzat ez zait harrigarria egin. Su-etenaren aurretik zuten unetik espero nuen zerbait gertatzea. Denok badakigu ETak nola jokatzeko duen. Agian gehiago espero nuen ekintza bat Madrilén. Politikoak nahikoa urduri jarri dira eta lehendik zegoen ilusioa pixka bat zapuztu egin da baina uste dut une gogor hauek pasako direla eta gauzak berriro bere onera etorriko direla. Hala espero dut behintzat.

Fernando Buesa aukeratu izanak zerbait berezia esan nahi al du?

Ez dut uste. ETak hori bere objektiboak eta ahal duen tokian eman du. Buesaren ordez beste bat izan balu eskura Madrilén, agian hura hilko zuten. Edo agian Euskal Herrian egin nahi izan dute hemengo egoera politikoa neurtzeko. Nik ekintza mota honekin daukadan zalantza da ea onura politikorik hartzen diogun. Nire ustez momentu honetan boto espainola indartzen dute.

1998an alderdi abertzaleen arteko elkarrizketa prozesu bat abiatu zen eta hortik etorri ziren Lizarra-Garaziko akordioa eta ETaren su-etenaren 15 hilabeteren buruan su-etenaren bertan behera utzi zuen ETak. Zein da porrotaren erantzulea?

Uste dut denok garena pixka bat errudun. Nik oso baliagarria ikusi dut emandako pauso hori horrenbeste urtetan borrokan egon eta gero. Horretara iristea niretzat positiboa

izan da, guztiz. Nire ustez prozesua ELA eta LABekin hasi zen, hor zabaldu zen bidezidorra. Gero Lizarra-Garazi etorri zen, herrian ilusioa piztu zen. Orain badirudi gauzak zatitu egin direla, baina nik uste dut aurrera egingo duela. Gaurko lana elkarlanean dago, eta hori ezin dugu galdu. Orain ikusten ari garen tentsioa normala da alderdi politiko bakoitzak bere bidea duelako eta hori bateratzea ez da erraza. Esperientzia handirik ez dugu bake prozesu honetan, baina uste dut itxaropentsuak izan behar dugula.

“Ados egon zaitezke ETaren estrategia-rekin edo ez, baina errudun nagusia gobernu espainola da, hasiera hasieratik ez duelako batere lagundu. Oztopoak baino ez ditu jarri bazter guztietan”

Alderdi espainolei ez al zaie gehiago komeni gaur egungo egoera?

Nik uste dut Lizarra-Garazin ez dela behar besteko indarra eduki pausoak emateko. Indar espainolistek eraso gogorra egin diote eta horrek min handia egin dio. Eraso gogor horiei aurre egiteko agian nahikoa berde harrapatu du Lizarra-Garaziko jendea.

Bake prozesua erdi zapuztuta, alderdi espainolak porrotaz baliatzen ari dira alderdi abertzaleei egurra emateko. Badirudi ez dagoela zeregín handirik beraiekin.

Niretzat egoera honen errudun nagusia gobernu espainola da. Ados egon zaitezke ETaren estrategiarekin

edo ez, baina errudun nagusia gobernu espainola da, hasiera-hasieratik ez duelako batere lagundu. Oztopoak baino ez ditu jarri bazter guztietan. Bake prozesuaren kontra egon da beti eta hori apurtzen saiatu da. Arrazoia garbia da. Ikusi dute euskaldunon artean nolabaiteko elkar ulertze batera gindoazela eta horrek min handia egin dio. Ekintza armatuak baino min gehiago egin dio gobernu espainolari gure arteko harremana sendotzeak. Gobernu espainolak nahiago zuen su-etenaren apurtzea eta lehengo prozesuan erortzea Lizarra-Garazik aurrera jarraitzea baino.

Eta hori ikusita, ze etorkizun geratzen zaigu euskaldunoi?

Nik esperantza ez dut galtzen. Nahiz eta orain tentsio handia egon alderdi abertzaleen artean, uste dut gauzak bere onera etorriko direla. Hemen beti ekintza baten ondorioz aterkia zabaldu eta itxaron egin behar izaten da zaparrada pasa arte. Tentsio hori pasa eta gero gauzak bere tokira joango dira.

Orduan ez duzu uste 1998aren aurretik genuen egoerara itzuliko garenik.

Ez dut uste. Atzerapauso bat izan da, geldiduna bat bidean. Herriko jende soilak ilusioa galdu egin du pixka bat, baina egia esan, nik uste dut hauteskundearen ondoren, luzera gabe, berriro su-etenaren etorriko dela. Ez dut uste egoera honek gehiegi iraungo duenik. Ikusita benetan Madrili gure arteko elkarlanak ematen diola min, uste dut laister gauzak bere tokira etorriko direla.

1998ko irailan ETak su-etenaren iragarri zuenean, zuk zer pentsatu zenuen?

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea



Ixidro Etxabe bere etxean egindako elkarriketan.

Asko poztu nintzen, aspaldidanik horren itxaroan nengoelako. Ikusten nuen euskaldunon artean borrokan ari ginela benetako etsaia Madrilen zegoen bitartean. Gure arteko ikamika horrek espainolak indartzen zituen. Baita ere ikusten nuen prozesu zaila izango zela, hain ezberdinak diren alderdiak ados jartzea prozesua abiatu eta amaieraraino eramateko ez baita erraza. Bake prozesu guztietan oso zaila izaten da hasi eta bukaeraraino iristea. Etenak egotea ulergarria da. Pozgarria ez, baina ulergarria bai. Gaur egun eroso ez da inor sentitzen, ez EAJ, ez EA eta ez EH, esperientziak erakutsi digulako gure egin beharra eguneroko elkarlana dela, eta hortik joan behar dela. Agian ez dira pausoak nahi bezain azkar ematen, berde gaudelako, prestatu gabe gaudelako, baina hor dago bidea, eta bide bakarra da.

B Beraz, ez zinen batere harritu ETAk su-etena hautsi zuenean.
Ez, batere ez. Gainera ikusten ari zen Lizarra-Garazi pixka bat hila zegoela.

Hasieran arrakasta handia izan zuen baina gero hortxe gelditu zen, agian ez zirelako eman beharreko pausoak ematen edota prestakuntza falta zegoelako, edo agian ez zelako egutegi bat ezarri zer egin behar zen zehazteko. Eta ezin dugu ahaztu lehen esandako indar espainolen eraso. Baina nik uste dut berriro horra joan behar dela, bide bakarra delako.

“ETA gaur herriaren-gandik urrundua ikusten dut. Ni gaur egun ez nago borroka armatuaren alde. Uste dut pauso aberatsagoak egin daitezkeela eguneroko elkarlanarekin”

B Zer iruditzen zaizu hauteskunde hauetarako EHk abstentziarako egin duen deia?

Nire zalantzak ditut, egia esan. Ez dut hain positiboki ikusten. Hainbeste urteko borroka eta gero ikusten dut

boto espainolaren indarra non dagoen eta kezkatu egiten naiz. Egoera honek guztiak boto espainola bultzatzen duela pentsatzen dut, eta horrek kezkatu egiten nau.

Presoen borroka

B Presoak borroka latza ari dira burutzen. Azarotik gose greba luzeak ari dira egiten. Euren bizitza jokoan jartzen ari dira. Nola ikusten duzu beraien egoera?

Beltza. Tamalgarria da, baina beltza. Betiko jendea hor dabil beraien alde lanean, baina kale giroan, jende arruntaren artean ez da hitz egiten presoek eta euren arazoez. Pixka bat urrunduta gaudela iruditzen zait. Gogoz heldu behar zaiola uste dut nik. Mutil bat ikustea gose greban 60 egunez, eta horrek ez duela ondorio onik izango jakinda, herria horretaz gehiago ez kezkatzea eta ez mugitzea oso gogorra da. Euren borrokarekin bat nator erabat, baina kalean ez dut erantzunik ikusten, eta horrek mina ematen du. Lotsagarria da hogeit urte eman eta gero presoak oraindik kartzelan egotea. Gobernu espainola ez da ari ezer egiten. Badago jende pila bat kalean egon beharko litzatekeena. Euskal Herrira esaten dugu, baina asko etxera ekarri beharko lituzkete. Baina badakigu etsaia non dagoen eta bere lana zein den eta hemen gu antolatu behar gara, euskal alderdien artean.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrikoi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908-143409

BALEIKE

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334


ETAko garaiak

■ Isidro Etxabek zergatik erabaki zuen egun batean ETAn sartu nahi zuela?

Garai hartan mugitzen ginen giroa nahikoa aberatsa zen, mendi giroa, koadrila giroa... Etxean beti bizi izan dugu abertzaletasun grina hori. Jende jakin bat ezagutu nuen eta jende horren bidez hasi nintzen mugitzen eta azkenean sartu egin nintzen. Prozesu normal bat izan zen. Orduko egoerak sentiarazten zidan nolabaiteko borroka egin beharra zegoela. Horrek eraman egiten zaitu.

■ Inoiz damutu al zara orduan hartutako erabakiaz?

Inoiz ez. Nik uste dut urte haiek oso aberatsak izan zirela niretzat, arlo askotatik begiratura. Egoera oso gogorak bizi izan ditut, baina onak ere bai. Benetako lagunak une latzetan ezagutzen dira. Jende asko ezagutu dut eta baita mundua ere



nahikoa zabalki, batera eta bestera mugituz. Niretzat oso positiboa izan da eta ez naiz inoiz damutu.

■ Zure ikuspuntutik, gaur egun borroka armatua ez bada zilegi, garai haietan zergatik bai?

Garai haietan uste dut herriarengandik hurbilago sentitzen ginela. Gaur egun urrunduago ikusten ditut. ETA gaur herriarengandik urrunduago ikusten dut. Ni gaur egun ez nago borroka armatuaren alde. Uste dut pauso aberatsagoak egin daitezkeela eguneroko elkarlanarekin.

“Nire garaian ekintza bat burutze-rakoan begiratzeko genuen zibil bat erori ahal zen edo ez, eta arriskua ikusten bazen ez zen ekintzatik egiten”

■ Herriarenganako lotura hori ikusten al zenuen zu ETAn zeundenean?

Bai, lotura handiagoa ikusten nuen. Gero nire eztabaidak izan nituen, agian ni aldatu nintzelako nahiz eta nik ez dudan horrela pentsatzen, eta ez nintzen eroso sentitzen. Zetorren jende berriarekin ere urrunduago ikusten nintzen. Nire ustez estrategia aldaketa bat izan zen barrenean eta zenbait ekintza mota ez nituen onartzen. Horrek eraman ninduen ETA uztera. Gero saltsa guztia etorri zen baina hor ez gara berriro sartuko.

■ Erakundetetik alde egitea erabaki zenuenean arrazoi ideologikoak edota estrategikoak eman zenituen zuk, baina ETA kide batzuek zerbait

gehiago izan zela esan zuten. Traidoretzat ere hartu zintuzten.

Gauzak guztiz tokiz kanpo interpretatu ziren. Bakoitzak bere irakurketa eman zion nik emandako pausoari eta nik min handia hartu nuen. Ez nuen horrelakorik espero, uste dudalako ez genuela ezer txarrik egin. Batzuek kristorenak esan dituzte, baina gezur pila bat ibili da kontu horrekin. Nik garbi nuen nire hirugarren gradua emanez gero kanpora joango nintzela. Eskatu ez nuen inoiz egin, baina argi nuen kanpora joango nintzela egoera hartan. Ez baintzen eroso sentitzen, baztertuta ikusten nintzen. Hori gertatu zen. Gero bakoitzak nahi zuen modura ulertu zuen.

■ 1981ean sartu zintuzten kartzelan eta 1993an atera. 12 urte horiek nola bizi izan zenituen? Gauzak asko aldatu al ziren zure barrenean?

Ez dakit. Kartzela gogorra da, hori badakigu. Nik kartzelari hiru irakurketa egiten dizkiot. Sartzen zarenean egin duzunari begira bizi zara. Gero, hurrengo fasean pentsatzen duzu gauzak ondo doazela eta askatasuna laister iritsiko dela. Baina gero hirugarren fasea dator, eta hor tunel ilun baten barruan ikusten duzu zure burua, inolako soluziorako itxaropenik gabe. Nire kasuan hala izan zen behintzat, agian ez nintzelako eroso sentitzen ETAk hartutako bidearekin.

■ Baina zer aldatu zen ETAn zu eroso ez sentitzeko?

Ekintza motak adibidez. Kotxe bonbak hasi ziren orduan, eta objetiboa garbitu beharrean bere alaba edota jende zibila erortzen zen. Hortik

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua




kanpo ikusten nintzen. Nire garaian ekintza bat burutzerakoan begiratzan genuen zibil bat erori ahal zen edo ez, eta arriskua ikusten bazen ez zen ekintzarik egiten. Uste dut lehen zuzenago ibiltzen ginela.

“Grabaketa bat gertatu zen tarteko eta nik ulertzen dut gobernua horretaz baliatu zela nire izena zein zen jakinda”

B Kartzelatik atera zinenean, saltsa guztiaren ondoren, pentsatzen dut harreman asko galdu egingo zenituela.

Bai, batzuk bai, baina ez naiz hain galduta ikusi. Nire adineko jendearekin ez dut horrelako hutsunea sentitu. Agian gehiago gertatu zait gazteagoekin, baina nik ez nituen ezagutzen eta ez dit arazo handirik eragin. Zarata handiagoa izan da errealitatea baino. Nire benetako lagunak mantentzen ditut, eta nire garaian errefuxiatuak izandakoekin oraindik oso harreman ona dut. Geure bazkaritxoak egiten ditugu... Gehiago saiatu ziren guri kalera ateratzeko beldurra sarrarazten, baina nik garbi nuen kaletik ibiliko nintzela, ez bainuen uste ezer txarrik egin nuenik. Nik ez nuen ezer eskatu, ez nuen ezer sinatu, ez nuen ezer egin. Bideo grabaketa bat gertatu zen tarteko eta nik ulertzen dut gobernua horretaz baliatu zela nire izena zein zen jakinda. Agian etsaiaren joko horretan sartu nintzen, baina erakundetik kanpo ikusten nintzelako. Gero hirugarren gradua eman zidaten eta



kartzelatik atera nintzen, besterik gabe.

B Etorkizunari begira, zer ikusten du Isidro Etxabek Euskal Herriarentzat?

Pausoak poliki ematen dira. Politikan asko hitz egin eta gutxi egiten da. Pausoak astiro joango dira, baina ni itxaropentsu nago. Nik uste dut

erakundeak berak badakiela bere ekintzekin baino elkarlanarekin pauso gehiago eman daitezkeela. Nik uste dut orain itxaroan daudela hauteskundeon ondoren alderdiek zein bide hartzen duten ikusteko, agian berriro su-etena emateko. Nik behintzat itxaropen hori dut.

◀ **GORKA ZABALETA**/Argazkiak: A. Bayo

ilarfi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea Tel. 861523

**ILEAPAINDEGIA
IRUITZ**

San Telmo, 12
Tel. 860760



*Hainbesteko
esplikazioekin, ez
dago ke seina-
lerik bidali
beharrik*



*aitak tximinia
garbitzeko
premia din*



*Pipi,
txintxotik
arpeia
bakarrik*

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446



*Zipi izan da... ez
Zape... ni ez!...,
bioi masaileko
bana emanda
asmatu*



*sukaldian
txapela? burua
txikitzeke ere...
Txefixonera*



*Kontuz! ez da Albako
dukesa, Kanturremix-en
emaztea da.*



*ezetz Agur Jaunak
dantzatu?*

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

julio curiel

G PELUQUERO

Gizonezkoentzat
ileapaindegia

Erribera kalea, 23

*Larrañaga
Juanjo*

HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

Hirien erronka latzena

Garapen jasagarria izango da, inolako zalantzarik gabe, hiriek XXI. mendean izango duten erronkarik latzena. Gure gizartean, hiri berebiziko gune soziala eta ekonomikoa bilakatu da. Mundua globalizatzen ari dela nabaria da, eta datozen 50 urteotan munduko biztanleriaren %70a hiri handietan biziko da. Hau da, 10.000 milioi biztanletik 7.000 milioi hirietan biziko dira. Gaur egun jada hiriek hondakinen %50a sortzen dute, energiaren %33a kontsumitzen dute, eta materialen %40a erabiltzen da hauek eraikitzeke. Ereduekin jarraituz gero, hondamendiaren bidetik goaz, eredu jasangaitza baita: ingurugiroarekiko ez du inolako begirunerik, energia eta baliabide gehiegi xahutzen ditu, hondakin gehiegi sortzen du eta bere neurrigabeko hazkundeak ez ditu etorkizunean izan ditzaken eragin kaltegarriak kontutan hartzen. Milioi bat biztanleko Europako hiri batek 11.500 tona erregai kontsumitzen ditu egunean, 320.000 tona ur eta 2.000 tona elikagai; era berean, 25.000 tona CO2 sortzen ditu, 1.600 tona hondakin, eta 300.000 tona ur zikin isurtzen du. Kopuru hauek mundu osoko hirietan aplikatuz gero, akabo. Beraz, garbi dago gure ereduaren mugak onartzeko garaia iritsi dela, ingurugiroarekiko zuzenagoa den beste bat asmatu eta indarrean jartzeko.



Ingurunearen kalitatea

-Hiriek zeresan handia dute Lurrak gaur egun dituen ingurugiro arazo handienak konpontzerakoan. Lurraren berotzearen eta Ozono geruzaren galeraren erantzule zuzenak dira, eta horiei konponbidea jartzeko neurri konkretuak hartu behar dira.

-Lekuan lekuko ingurunea eta bioaniztasuna babestu behar dira. Hiriaren garapenak horiengan izan dezaken eragin kaltegarria neurtu behar da beti. Ingurunearekin bat egiteko neurriak hartu beharko lirateke.

-Arriskuei aurre egiteko prebentzio neurriak hartu behar dira.

-Naturaren baliabideak zaindu egin behar dira, gehiegizko kontsumoa saihestuz. Ura, lurra, erregaiak eta beste zenbait materialen kontsumoa jaitsi egin behar da eta, era berean, sortzen ditugun hondakin kopuruak murriztu. Guzti hori posible da neurri konkretuak indarrean jartzen badira.

Hiriaren egitura espaziala

-Hiriaren egiturak zeresan handia du arazo guzti hauetan. Beti ere kontutan izan behar dira lekuaren ezaugarri fisikoak hiri nola eraiki behar den erabaki aurretik. Hiriaren egiturak harreman zuzena du garraioaren antolakuntzarekin, besteak beste.

Bizitza sozialaren kalitatea

Hiritarraren bizitza kalitatea bermatu behar da. Bere ingurune fisikoa eta soziokulturala zaindu behar da, bere garapenak oztoporik izan ez dezan.

Hiriko ekonomia

Oreka ezinbestekoa da. Ingurunea-erekiko begirunez aritzen diren enpresak bultzatu behar dira, eta horretako ezinbestekoa da hezkuntza.

◀ GORKA ZABALETA

LIB
AIZPURUA
R
U
D
E
N
D
A

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

KUKUTZ
serigrafia
*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

Kresala
— edergintza —
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Richard Fernandez eta Alaitz Etxeberria Zumaiako XVI. Kros Herrikoia- ren irabazleak

Jaime Osa eta Karmele Sasiain izan ziren lehen zumaiarrak

Inauterietako igande eguzkitsu batean jokatu zen Zumaiako XVI. Kros Herrikoia. Aurretik alebin, infantil eta kadete mailetak haurrek parte hartu ondoren, goizeko hamar tierdietan eman zitzaion irteera emakume eta gizonezkoen jubenil, junior, senior eta beterano mailako atletak batzen zituen krosari. Jakina den bezala, emakumezkoek bi distantzien artean aukeratu behar zuten: 5.800 metro edo 10.200 metro. Gizonezkoek, aldiz, 10.200 metroko laisterketa bete behar zuten. Gizonezkoen mailan, haseratik hartu zuen burua Richard Fernandez

oñatarrak, atzetik Soroluzeko Juan Alberdi zuelarik. Emakume mailan, 10.200 metroko laisterketan gauzak oso estu joan ziren amaierarate. Helmugan Alaitz Etxeberria azpeitiarra izan zen garaile, aurreko urteko irabazlea, Amaia Insausti Olaberriakoa bigarren heldu zelarik lau segundu eskasetara. 5.800 metroko laisterketan beste azpeitiar bat izan genuen garaile, Arantxa Aldalur alegia, bigarren Alaitz Lizaso oriotarra heldu zelarik. Zumaiarren artean, gizonezko mailan Jaime Osa izan genuen irabazle, bigarren Xabier Irureta eta

hirugarren Felipe Agirre. Emakumeen artean, 10.200 metroko laisterketan bi zumaiar heldu ziren helmugara, lehena Karmele Sasiain eta bigarren Karol Belaustegi. 5.800 metroko laisterketan Begoña Agirre izan zen lehen zumaiarra, bigarren Belen Vicente eta hirugarren Maria Pilar Manterola. Beteranoei dagokionez, orotara Cesar Perez donostiarra izan zen lehena, eta zumaiarren artean Julian Igual lehena, Vicente Villar bigarren eta Fernando Gajate hirugarrena.



Kalarri

J
A
T
E
T
X
E
A

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517



KABI
TABERNA - ZUMAIK
Tel. 143379



**taberna
JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Sailkapenak



Emakumezkoak (5.800 metro)

01. Arantxa Aldalur	0.22.45
02. Alaitz Lizaso	0.23.30
03. Edurne Arruti	0.24.55
04. Nieves Civicos	0.25.33
05. Belen Dominguez	0.26.02
06. Pilar Lama	0.26.10
07. Begoña Agirre	0.26.48
08. Juani Etxarri	0.27.34
09. Belen Vicente	0.28.46
10. Jaione Aramendi	0.28.46

Zumaiarrak

01. Begoña Agirre	0.26.48
02. Belen Vicente	0.28.46
03. M ^a Pilar Manterola	0.29.04
04. Estibalitz Garcia	0.29.38
05. Lore Esnal	0.30.21
06. Marijo Aizpurua	0.30.32
07. Margari Murillo	0.32.26
08. Lore Aizpurua	0.34.20
09. Ines Aseguinolaza	0.36.46

Emakumezkoak (10.200 metro)

01. Alaitz Etxeberria	0.39.22
02. Amaia Insausti	0.39.26
03. Leire Elosegui	0.39.30
04. Maria Jesus Silvano	0.40.16
05. Onintza Zeberio	0.40.51
06. Maite Civicos	0.41.10
07. Lurdes Alonso	0.41.55
08. Pilar Arriola	0.44.27
09. Ana Alkorta	0.46.25
10. Ana Oyaga	0.47.35

Zumaiarrak

01. Karmele Sasiain	0.47.40
02. Karol Belaustegi	1.00.37

Richard Fernandez



Jaime Osa



Joaquin Gorostola eta Lore Aizpurua



Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Loitz

* Eskola eta
bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422





Alaitz Etxeberria.



Sailkapenak

Gizonezkoak (10.200 metro)

01. Richard Fernandez	0.31.43
02. Juan Alberdi	0.32.24
03. Cesar Perez	0.32.57
04. Manu Hurtado	0.32.59
05. Patxi Mendizabal	0.33.01
06. Diego Campos	0.33.06
07. Mikel Zabala	0.33.15
08. Alvaro Arrieta	0.33.21
09. Jon Aranzabal	0.33.47
10. Marino Mateos	0.34.04

Zumaiarrak

01. Jaime Osa	0.35.28
02. Xabier Irureta	0.37.34
03. Felipe Agirre	0.37.43
04. Peio Santamaria	0.37.49
05. Jon Sasiain	0.38.13
06. Javier Barrera	0.38.16
07. Mikel Yeregui	0.38.17
08. Juan Ignacio Alkorta	0.38.18
09. Julian Igual	0.39.12
10. Ramon Otaño	0.38.12
11. Iñigo Etxaniz	0.39.50
12. Joseba Romatet	0.39.58
13. Eneko Urbieta	0.40.17
14. Joxe Mari Albizu	0.40.24
15. Vicente Villar	0.40.39
16. Juan Mari Azpillaga	0.40.40
17. Josu Goyogana	0.40.51
18. Lander Burguete	0.40.53
19. Iñigo Etxabe	0.41.09

20. Alberto Gorritiberea	0.41.18
21. Jesus Mari Martin	0.43.00
22. Joaquin Parejo	0.43.01
23. Benito Jose Duran	0.43.50
24. Fernando Gajate	0.43.58
25. Juan Ramon Martinez	0.44.21
26. Josu Egaña	0.44.54
27. Gotzon Enbil	0.45.16
28. Abundio Garcia	0.45.22
29. Iñigo Alday	0.45.24
30. Carlos Balenciaga	0.46.21
31. Jose Miguel Antia	0.46.28
32. Jose Agustin Zumeaga	0.46.29
33. Jose Luis Eizagirre	0.46.53
34. J. Mari Aguirrezabalaga	0.46.59
35. Mariano Sanchez	0.47.33
36. Miguel Aramendi	0.47.36
37. J.Bittor Arrizabalaga	0.47.37
38. Iñaki Aizpurua	0.47.41
39. Mikel Elizalde	0.48.17
40. Vicente Garcia	0.48.41
41. Ioseba Larrañaga	0.49.20
42. Jose Ignacio Landa	0.50.16
43. Jose Luis Sanchez	0.50.52
44. Jon Alvarez	0.51.47
45. Garikoitz Martin	0.54.54
46. Xabier Egaña	0.55.21
47. Fco. Javier Arrona	0.56.48
48. Juan Luis Amas	0.59.40
49. Joakin Gorostola	0.59.41
50. Iñaki Oregi	1.00.42

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

YIN YANG

GAZTEEN ERROPA

ZALLA

Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

Tel. 143278

KÉRASTASE PARIS

Maite
ileapaindegia

ile-apaindegia

Maxi

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomaturia

Foruen Enparantza, 13 - I Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Zu, Claudio

Duela hilabete Claudio Etxeberria Gorria patroï handia zendu zen, otsailaren 8an hain zuzen ere, 64 urte zituela. Gorria Turbo Deun famatuaren patroia izan zen, 1984an jokaturako bandera guztiak irabazi zituen trainerukoa -berak ekarri zuen Zumaiara Kontxako lehen bandera-. Oriotarra patroï ospetsuenetakoa izan da, 113 bandera irabazi zituen, horietako lau Kontxakoak. Ondorengo lerroetan EUSKALDUNON EGUNKARIAko Ramon Basaldua kazetariak gogora ekartzen dizkigu Claudioren bizitzako nondik norakoak.

Claudio Etxeberria Gorriak ohorezko lekua du arraunaren historian. Gorriak hainbat urte eman ditu patroï lanetan Bautista Oliden osabaren eskutik arraunketa munduan sartu zenetik. 1951n hasi zen eta 1997a arte aritu zen. Hamabi taldetan jardun zuen: Aginagan, Tolosan, Jaizkibelen, Orion, Ibarra, Lasarteko Michelinen, Getarian, Hondarribian, Donostian, Zumaiara, Arkote-Bermeon eta Ondarroan. Lehen urtean, Oriorekin, Espainiako Txapelketa irabazi zuen, Madrilen, bateletan.

Tarte horretan 16 aldiz lehiatu zen Donostiako Kontxako Banderan, eta lau aldiz lortu zuen garaipena: 1960an Aginagarekin, 1964an Oriorekin, 1969an Lasarterekin eta 1984an Zumaiarekin.

Guztira 113 bandera irabazi zituen Gorriak. Ez zegoen gustura zenbaki horrekin -"zenbaki txarra da 13an bukatzen den hori", esaten zuen- eta duela gutxi arte ez zuen galdu 114.a irabazteko itxaropena. Ez zuen irabazi, baina. 113 bandera haietatik 1984an lortutakoak dira ezagunenetakoa; izan ere, arraunzaleek ez dute sekula

ahaztuko Claudio Etxeberria patroï zela Zumaiako Telmo Deun traineruak 1984ko denboraldian egin zuen lan bikaina: gorriak eta bere gizonek parte hartu zuten estropada guztietan irabazi zuten; ikaragarritzko marka izan zen.

Besteak beste, Espainiako Txapelketa ere irabazi zuen, eta hura irabazi izana lagungarri izan zuen behin Guardia Zibila etxea miaztera sartu zitzaionean. "Egun batean Guardia Zibila Claudioren etxean sartu zen, eta bazterrak miazten ari zirela, Espainiako bandera aurkitu zuten armairu batean. Claudiok Espainiako Txapelketan irabazitakoa hain zuzen. Espainiako bandera ikusi ondoren guardia zibilek barkatzeko eskatu zioten Claudiorekin eta alde egin zuten", kontatu digu Patxi Bilbaok, Claudiorekin soldadutza egin zuen bermeotarrak.

Bilbao bera Bermeoko Arraun Elkarteko presidentea izan zen eta haren bitartez itzuli zen Claudio Etxeberria arraunketa mundura 1991n, sei urte patroï lanetan jardun gabe egon ostean. Eta Gorriak lan ona egin zuen Arkote eta Bermeoko



arraunlariak osatu zuten traineruan. Sei urte geroago Ondarroako arraun taldekoek deitu zioten Antiguako Ama zuzentzeko eta Gorriak ez zien ezetzik esan. "Semea Ondarroara joan zen eta ni hango patroiei erakustera joan nintzen. Eta, gero, semeari han zerbait pasatu zitzaion arraunlari batzuekin, utzi egin zuen kluba eta inor gabe zeuden, eta ez uzteagatik, hortxe segitu nuen", zioen Claudiok berak 1997an egindako elkarrizketan. Eta gustura. "Bai, saltsa pixka bat badakizu zer izaten den. Horko saltsa horrekin txiki-txikitatik hasiak gara, eta tiratu egin du".

Gorria ez da beti izan patroia. arraunean ere jardun zuen garai batean, Andoainen, bateletan, "eta baita ikurrinak irabazi ere", baina nahiago zuen patroï lana, nahiz eta zailagoa izan. "Patroitzarako beste zerbait behar da, bista handia eta beste zera bat". 1997an utzi zuen arraun mundua, eta azken bi urte t'erdian igeltsero lanetan aritu da, semearekin, zendu den arte.



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- .Banakakoak
- .Kolektiboak
- .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

martxoa

**DEIALDIA: INAUTERIETAKO
ARGAZKI LEHIAKETA**

Hiru sari, bakoitza 10.000 pezetakoa. Banakako argazki onenari, taldeko argazki onenari eta Zumaian inauteriak, kale giroa. Lanak aurkezteko:

- Martxoaren 20a baino lehen
Foronda Kultur Etxean

ERAKUSKETA

Altzarien berritze ikastaroan egindako lanak egongo dira ikusgai.

- Martxoaren 8tik 22ra
Foronda Kultur Etxean

HITANOA ZUMAIAN

Liburuaren aurkezpena.

- Martxoak 17, ostirala, arratsaldeko 7etan.
Foronda Kultur Etxean

ZINE FORUM SAIOA

Robert Altmanen "Cookie's fortune"

- Martxoak 23, osteguna, gaueko 10.15etan
Aita Mari zinean

ZINE FORUM SAIOA

David Mameten "El caso Winslow"

- Apirilak 6, osteguna, gaueko 10.15etan
Aita Mari zinean

**Jarraitzen duten
ikastaro eta
zerbitzuak:****PINTURA TAILERRA****LIBURUTEGIA**

Helduentzat

- Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta
16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

- Astelehenetik ostiralera, 16.00 -
20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

- Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

- Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta
16.30 - 19,30

**Harpidedun
izatearen abantailak**

Gure aldizkaria inork baino lehenago etxean goxo-goxo jasotzeaz gain, harpidedun izateak baditu beste era bateko alderdi onak ere. Esate baterako, Udalak gure eskuetan jarri dituen aleei esker, Julene Azpeitia lehiaketako liburu baba babatu da zenbaki honekin batera, 11. aldiko ipuinak biltzen dituen, Imanol Azkue eta Xabier Etxanizenak, hain zuzen ere.

Telefono berria

Baleikeko telefono zenbakia aldatu dugu. Hemendik aurrera gurekin hitz egin nahi izanez gero zenbaki honetara dei ezazue:

943 86 04 12

Buzoia berriz

Erribera kaleko Taosa liburudendan arkituko duzue.



Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

ILE APAINDEGIA

**nera
uranga**

Etxezarreta, 19 Tel. 862342

Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

ZINE FORUM

Martxoak 23, osteguna

Cookie's fortune (1998)

Zuz: Robert Altman

Orain urte pare bat bezala, Robert Altman maisuaren film bat ikusteko aukera izango dugu Aita Mari zinean. Aurrekoan gangsterren zinea eta jazz musika elkartzen zituen *Kansas City* film bikaina eskaini baziguten Ostarrenakoek, oraingoan Altmanen komedia zoro bat aukeratu dute martxoaren amaierarako. Zuzendari zahar eta jakitsu honek Estatu Batuetako hegoaldean kokatu du bere azken filma. Suizidio bat hilketa bihurtu ondoren, herri txiki bateko egoera dena hankaz gora jarriko da. *Cookie's fortune*-en agertzen diren pertsonaien artean ez dago bat bera ere burutik ondo. Hegoalde sakon horretako ezaugarria ote? Altmanek beti bezala aktore bikainez hornitu du bere pelikula: Glen Close (*Mars attacks!*), Julianne Moore (*The Big Lebowski*), Liv Tyler (*Belleza robada*), Ned Beatty (*Deliverance*), etab. Aipatzekoa da Chris O'Donnell-en lana, normalean jasangaitza bada ere, oraingoan ederki betetzen baitu bere papera, polizia inuzentearena. *Cookie's fortune* absurduaren monumentu bat da, ikuslea algaraka jarriko duena.

Apirilak 6, osteguna

El caso Winslow

Zuz: David Mamet

Komedia baten ondoren dramaren txanda helduko da. Horretarako David Mamet zuzendari eta antzerkigile amerikarraren azken lana eskainiko da Zumaian. David Mamet-ek orain 25 urte Estatu Batuetako antzerki mundua aldatu zuen. Taula gainean nahi zuena egin ondoren zine mundura pasa zen, hasieran gidoigile bezala, eta ondoren zuzendari lanak egiten. Bereak dira, besteak beste, *Casa de juegos* eta orain urte bete Zumaian eskaini zen La trama thriller harriarriak. Oraingoan Mamet-ek antzezlan klasiko bat hartu eta pantailara eraman du. *El caso Winslow*-en aita batek bere semearen ohorea defendatzeko egingo duen lan guztia kontatzen digu Mametek. Ohikoa den bezala, zuzendari honek aktore bikainak hurreratu ditu bere ingurura, aitaren papera egiten duen Nigel Hawthorne ingelesa adibidez. Film hau zine kritiko ugariren ustez aurreko urteko film onenetakoa da. Ikusi beharko.

IDAZLEA: **Tim Burton**

La melancólica muerte de Chico Ostra

Hilero aldizkari honetako liburuen txokoa Zumaian Liburutegian aurki daitezkeen liburuen zerrenda bat eskaini dizuegu. Hala ere noizean behin, oraingoa bezalako altxor bat liburu dendetan aurkitzen denean, aipatzeaz gain, gomendatzea ere zilegi dela uste dugu. Hala bedi.



La melancólica muerte de Chico Ostra ez da ohiko liburu bat, ez du trama handirik, ez du 750 orrialdeko luzera duen istorio bat kontatzen, ez dago abokaturik, ez dago bere biktimak jaten dituen psikopatarik, ez. Liburu hau beste gauza bat da. Olerki minimalistaz eta marrazkiez osatutako altxorra, 139 orrialdeko altxor handia. Liburu honen idazle eta marrazkigilea Tim Burton zinegilea duzue. Zinea ezagutzen ez duen norbaitek galdetuko du, agian, ea nor den pertsonaia hau. Tim Burton hainbat maisu lanen egilea dugu: *Eduardo Manostijeras*, *Batman*, *Ed Wood*, *Mars Attacks!* eta orain zinetan ikus daitekeen *Sleepy Hollow*-ena besteak beste. Imajinario handiko mutila, Disney estudiantan lan egin zuena, pertsonaia marjinaletuen laguna. Liburu honetatik beste hainbat lagun pasatzen dira: Begi ugaridun neska; Ohe bihurtu zen neska; Mutil toxikoa; Momia mutila; Meloi-buru; Nino, pinguino-haur ikaragarria, etab. Pertsonaia hauen bizitza olerki txikien bidez kontatzen digu Burtonek, eta alboko orrialdean lagun honen marrazkia aurkituko dugu. Liburu honek zerbaiten antza badu, Burton berak asmatutako *Pesadilla antes de Navidad* filmarena du. Aukera ezin hobea zinezaleontzat maisu honen jenioaren beste alde bat dastatzeko.

Oharra: Liburu hau Burtonen fanatikoentzat, eta oraindik bere barnean ume baten inozentzia eta imajinarioaren aztarnak dituenentzat dago gomendatua. Besteok hobe poesiaz betetako orrialde hauetara ez hurbiltzea.

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412



Definizioak

1. Oharra: Definizio hauek kontuz eginda dauden arren badakigu musika ezin dela definitu, beraz alferrikako lana da hemen hasi eta orrialde bukaeraino dauden hitz guztiak.

2. Bi: Stephan Krieger eta Sylvie (Hasieran).

3.

4. Lau kantu: 48 min. 44 seg.

5. Bi bateria, bi baju eta elektronika (orain).

6. White noise (Zarata zuria):

Bilboko Likinianon aurkitu dut maketa zahar hau, gelditzen zen azkena. 89koa da eta horrek badu bere garrantzia. Adibide simple batez azalduko dut: demagun zuk 20 urte dituzula, beraz garai hartan 9 urte zenituen.

7. Voodoo: Vudu.

8. Vudu: Budu.

9. Budu: Iz. (Erl) 1- Antilletako eta bereziki Haitiko beltzen artean oso zabaldurik dagoen erlijio sinkretista. Afrikar eta kristau-jatorriko zenbait gurtza-moduren nahastea da. 2- Erlijio horretako jainkoa.

10. Katu Kale: Behin Katu Kalen irten ziren.

11. Matadero: Duela gutxi Azkoitiko Mataderoan jo zuten.

12. Mambient: Diskaren izena. Agian mambo eta ambient hitzak elkartetik sortua. Baina nola elkar daitezke bi gauza hain antagonikoak? Dantzarako dena eta lasai egoteko den musika ambientala?

13. CD-ROM: Ce CD contient des plages CD-ROM (MAC+PC). Hori jartzen du azalean.

14. Mozorroa: Maiteminduta zeuden, gizonak mozorroa kendu zuen arte. Atzean buruhezur bat izkutatzen zuen.

15. Amanita: Records.

16. Muzak: Alemanian musika enlatatua egiten zuen enpresa handiena. Nolabaiteko kontrol soziala zuen eta dentista itxarongela guztietan entzuten da.

Muzak:

17. Hamaseigarren definizioa ez nago seguru ondo dagoen. Beste zerbait izan daiteke.

18. Voodoo Muzak c/o Amanita, 64240 Urcuray. Dena ez da paja izango, eskuratu nahi baduzu hor, edo adibidez, Bilboko Likinianon.

19.

20. Borobiltzeko.

◀ JON MANZISIDOR

ESTAZIO Kaler, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kaler, 33 0 34 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

TXINGURRI
Koof.Elk.
Nekazaritza Injineru Teknikoak

Jardinen diseinu
— mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak —
aholkularitza teknikoa,
Balorazioak

TXOKO ABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

AROTEGIA
Urola 2000, s.l.

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo tarima eta persianak
*Armairu enpotratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

BELARDENDA SIWA
Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA


Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA
TALI
BIDAIK


Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

ZURI ERE GERTA DAKIZUKE





argazki zaharra



Zazpikote ederra begi aurrean daukadana! Ezkerreko izkinako beltzaran hori politta da benetan, baina Euxebi izena omen duen neska begiargi hori dut gogokoena. Bai. Ni kanpotarra naiz, eta erretratuak ateratzea nire bizibidea izanik, hemen eta han herriz herri ibiltzen naiz nire artea eskaintzen, bereziki itsasertzeko herrietan, marinel kastako jendea eskuzabalago izaten delako eta zenbait udaletxetatik ere deitu izan didatelako. Bai, eta gehien gustatzen zaizkidan herriak Ondarribi, Getaria, Lekitto eta orain nagoena -Zumaia- dira. Bospasei bider etorria naiz hona eta ez dut inoiz ahaztuko Euxebi estreinengo bider ikusi nueneko egun eder hura. Orain ondo amaituta dagoen barra berria eraiki behar zutela-eta, harri haundiak karriatzeko arranjatutik talaipera jarritako trenari erretratuak ateratzea etorria nintzen. Beheko estaziotik Urolan ekarritako harriak Zumaia-ko kamioiak larri-larri arranjalaraino eramane eta han tren berriaren burnizko bagoietan zamatuta ondoren makina martxan hasi zenean ni Arrapaxeneko ontziola parean nengoen hura noiz ailegatuko zain erretratu bat ateratzeko. Begi aurrean agertu zitzaidanak txunditu ninduen. Kanpalkaldean zutik leihoari heltzen makinistarekin berriketan, haizeak gonak zertxobait hanketara itsatsi eta altxatzen zizkiola, neska gazte zoragarri bat, itsasoko gesala aurpegi beltzarrandu irribartsuan igartzen zitzaionarik ikustean, urduri jarri, erretratatzeko makinaren tripodea hankaz jo, paol bideko lur gorriara erori eta ez erretratu eta ez ezer. Carole Lombard ematen zuen! Gau osoa neska eder haren irudia burutik kendu ezinik iragan nuen. Hurrengo egunean belarretan eserita sareak konpontzen ari zela ikusi nuen hanka eder haiek belaunetik behera bistan zituela eta, gainera, niri begirada samurra bota ote zidan ia segurantzia dut. Bakarrik egon balitz kasu egingo nion, baina arrantzaleen familiarteko hainbesteren tartera sartzea lotsa eman zidan. Euxebi duela izena ere laster asko jakin nuen. Orain ere Itzungo hondartza polit honetan aurrean dudan zazpikotearen ordeztu Euxebi bera bakarrik balego... Zumaia-ko festetan berrira etorriko naiz eta ea orduan ausartzen naizen Euxebiri dantza egin dezagun eskatzen. Hain lotsatia ez banintz!

TXOAZKIN



liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak

ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

ttikittaka



BALTASAR ETXABE Z/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

ALAI AUZATEGIA, 12 TEL: 943 860 258



**Bertan
aurkituko dituzu:**

- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Txarkuteria bikaina
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatuz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



burujabetza bidean

martxoaren 12an

abstentzioa

EH
Euskal Herritarrok